



BAZTANGO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

2019ko EKAINaren 15eko OSOKO BILKURA

SESIÓN PLENARIA DE 15 DE JUNIO DE 2019

Baztango Udaletxean, 2019ko ekainaren 15eko eguerdiko 12:00etan, 2019ko maiatzaren 26ko hauteskundeetan zinegotzi hautetsiak izan direnak bildu dira Udalbatza eratzeko eta alkatea hautatzeko. Hori dena, ondoko lege eta arautegietan xedatutakoa betetzeko: 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzkoa; 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen; eta Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamendua.

Ekitaldira zinegotzi hautetsi guztiak etorri dira. Honako hauek, hain zuzen ere: Joseba Xabier Otondo Bikondoa, Juan Cruz Iriarte Bañez, María Josefa Garmendia Urtizberea, Xabier Maia Etxeberria, Oianko Garde Jaunsaras, Xabier Torres Letona, María Isabel Olave Ballarena, María Carmen Iribarren Iribarren, Anastasio Nagore Garralda, Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche, Joseba Moreno Videgain, Rubén Ziganda Sanz.

Idazkari lanetan, Ainara Velez Ara ari da.

Aitzinetik, Toki Entitateen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Erregelamenduaren 7. artikuluan xedatua betetzeko, zinegotzi hautetsiek ondoko agiriak aurkeztu dituzte Idazkaritzan: zinegotzi-egiaztagutunak, balizko bateraezin-tasunaren arrazoi gainera bai eta diru-sarrerak ematen dizkieten edo eman dizkieketen jardueren gainera aitortzen ere. Halaber, ondare-ondasunen gainera aitortzen ere aurkeztu dituzte, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legearen 75.5 artikuluan adierazitakoaren arabera.

En el Ayuntamiento de Baztan, a 15 de junio de 2019, siendo las 12:00 horas, se reúnen los concejales electos en las elecciones locales celebradas el día 26 de mayo de 2019, al objeto de proceder a la constitución de la Corporación Municipal y a la elección del alcalde, todo ello en virtud de lo dispuesto en la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General y en la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local y en el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales.

Concurren al acto la totalidad de los concejales electos que son: Joseba Xabier Otondo Bikondoa, Juan Cruz Iriarte Bañez, María Josefa Garmendia Urtizberea, Xabier Maia Etxeberria, Oianko Garde Jaunsaras, Xabier Torres Letona, María Isabel Olave Ballarena, María Carmen Iribarren Iribarren, Anastasio Nagore Garralda, Florentino Goñi Tellechea, Iñigo Iturralde Eliceche, Joseba Moreno Videgain, Rubén Ziganda Sanz.

Actúa como secretaria, Ainara Velez Ara.

Previamente, los concejales electos, en virtud de lo dispuesto en el artículo 7 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, han presentado la credencial ante la Secretaría, así como declaración sobre las causas de posible incompatibilidad y sobre actividades que les proporcionen o puedan proporcionar ingresos económicos, así como declaraciones de sus bienes patrimoniales, según lo señalado en el artículo 75.5 de la Ley reguladora de las Bases del Régimen Local.



1.- ADINEKO MAHAIA ERATZEA

Udalbatza eratzeko Adineko Mahaia osatu da ondoko zinegotzi hautetsiekin: mahai-burua Florentino Goñi Tellechea, hautetsien artean zaharrena delako eta idazkari lanetan, Xabier Torres Letona, hautetsi gazteena delako.

2.- UDALA ERATZEA

Adineko Mahaiak egiaztatu ditu idazkariak emandako zinegotzi-egiaztagutunak, eta guztiak behar bezala aurkeztu direla ikusi du.

Udal hau hamahiru (13) zinegotziek osatzen dute eta ekitaldira guztiak agertu dira. Horregatik, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko legeak, 195.4 artikuluan eta Toki Entitateen Antolakuntza eta Funtzionamenduko Erregelamenduak 37.4 artikuluan xedatzen dutena, bete da. Hau da, Udalbatza eratzeko zinegotzi hautetsien gehiengo osoa beharrezkoa dela.

Segidan, Hauteskunde Erregimen Orokorrari buruzko legeak 108.8 artikuluan xedatua jarraituz, zinegotzi berriei zin egin edo hitz eman dezaten eskatu zaie eta, horretarako, galdera hau egin zaie: "Zin egiten edo hitz ematen duzue zinegotzi karguari dagozkion betebeharrak zintzoki beteko dituzuela eta Konstituzioa, Estatuaren funtsezko arau gisa, bete eta betearaziko duzuela?"

Hala baieztatu dute UPN eta BAZTANGO EZKERRA taldeetako hautetsiek. EH-BILDUKOAK eta GEROA BAIKOAK formula legeak hala agintzen duelako betetzen dutela adierazi dute.

Horrela bada, hamahiru (13) zinegotziek karguak hartu dituzte.

3.- ALKATEA AUKERATZEA

Ondoren, Adineko Mahaiak ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluan ezarritakoa irakurri du.

.- Zinegotzi guztien gehiengo osoa lortzen duena izendatuko da alkate.

.- Horrela ez bada, bozka gehien izan duen zerrendaburua izendatuko da alkate.

Alkate izateko hautagaiak hauek dira:
JOSEBA XABIER OTONDO BIKONDOA
MARIA ISABEL OLAVE BALLARENA

1.- FORMACIÓN DE LA MESA DE EDAD

A fin de constituir la Corporación, se forma la Mesa de Edad, integrada como presidente por el concejal electo de mayor edad, Florentino Goñi Tellechea y como secretario Xabier Torres Letona, por ser el electo de menor edad.

2.- CONSTITUCIÓN DEL AYUNTAMIENTO

La Mesa de Edad comprueba las credenciales entregadas en Secretaría, hallando todas en debida forma.

Formando este Ayuntamiento un número de trece (13) concejales y estando todos presentes, se cumple lo establecido en el artículo 195.4 de la LOREG y artículo 37.4 del ROF, que dispone que para la constitución es precisa la asistencia de la mayoría absoluta de los concejales electos.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 108.8 de la LOREG, los nuevos concejales son requeridos para prestar solemne juramento o promesa. Para ello, se formula la siguiente pregunta: "¿Juráis o prometéis cumplir fielmente las obligaciones de vuestro cargo de concejal y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?"

Así lo afirman los concejales electos de los grupos UPN y BAZTANGO EZKERRA. Los concejales de EH-BILDU y GEROA BAI indican que cumplen con la fórmula por imperativo legal.

De este modo todos los concejales (13) toman posesión de sus cargos.

3.- ELECCIÓN DEL ALCALDE

Acto seguido, la Mesa de Edad da lectura a lo establecido en el artículo 196 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio.

.- Quien obtenga la mayoría absoluta de los votos, será proclamado alcalde/alcaldesa.

.- En caso contrario, será proclamado alcalde/sa el/la cabeza de la lista que más votos hubiera obtenido.

*Los candidatos para el cargo de alcalde/sa son:
JOSEBA XABIER OTONDO BIKONDOA
MARIA ISABEL OLAVE BALLARENA*



Alkatea hautatzeari ekinen zaiola adierazi da, bozketa bakarraren bidez eginen dela eta zinegotzi hautetsi jaun-andreek bakarrik parte hartuko dutela, guztira hamahiru izanik.

Ondoren, mahaiburu jaunak bozketa hasteko agindua eman du: boto txartelak banatu dira eta horretarako prestatu den kartazal batean sartu dira.

Bozketa akitu eta kontaketa egin da. Emaitza hau izan da:

JOSEBA XABIER OTONDO BIKONDOAk, 8 boto.

ISABEL OLAVE BALLARENak, 3 boto.

Zuriak, boto 2.

Kontaketa akiturik, inongo protestarik izan gabe, eta ikusirik inork ez duela lortu gehiago osoa, eta ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikuluari jarraikiz, udalerrian herritarren boto gehien lortu duen zerrendaren buru den zinegotzia alkate izendatuko da.

Aintzat izanik udalerrian boto gehien lortu zuen zerrenda EH-BILDUrena izan zela, JOSEBA XABIER OTONDO BIKONDOA jauna, aipatutako zerrendaburua, izendatua izan da legez udal honetako alkate.

Ondoren, JOSEBA XABIER OTONDO BIKONDOA jaunak kargua hartu du, horretarako aitzinetik zin egin edo hitz eman du, arestian aipaturiko formularen arabera.

Azkenik, idazkariak adierazi du, kontuhartzaileak ekainaren 12an sinaturiko agiriaren arabera, egun horretan Udalaren kontuetan, 2.644.070,27€ euro zeudela guztira.

Horren ondotik, alkate jaunak hitz batzuk erran egiten ditu.

Jarraian, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 12:30ean. Idazkari gisa horren guztiaren fede ematen dut.

Se indica que se va a proceder a la elección de alcalde y que se efectuará mediante una única votación secreta, en la que tomarán parte los concejales electos que son el número de trece.

El señor presidente ordena el comienzo de la votación, entregándose las papeletas, que son depositadas en un sobre preparado al efecto.

Finalizada la votación se procede al escrutinio que da el siguiente resultado:

JOSEBA XABIER OTONDO BIKONDOA, 8 votos.

MARIA ISABEL OLAVE BALLARENA, 3 votos.

En Blanco, 2 voto.

Terminado el escrutinio sin que haya habido protesta alguna, y atendiendo a que ningún candidato ha conseguido la mayoría absoluta, en aplicación del artículo 196 de la Ley Orgánica 5/85, de 19 de junio, el concejal que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos populares en el correspondiente Municipio será proclamado Alcalde.

Teniendo en cuenta que la lista más votada en el municipio fue la de EH-BILDU, se declara legalmente alcalde de este Ayuntamiento a Don JOSEBA XABIER OTONDO BIKONDOA, cabeza de lista de la citada lista.



Acto seguido Don Joseba Xabier Otondo Bikondoa toma posesión del cargo de alcalde, para lo cual previamente ha prestado solemne juramento/promesa, a tenor de la fórmula reseñada.

A continuación la secretario indica que de conformidad al documento suscrito por la interventora el día 12 de junio, en las cuentas del Ayuntamiento había un total de 2.644.070,27 euros.

Tras ello, el alcalde dice unas palabras.

Seguidamente, por el Sr. alcalde, se levanta la sesión siendo las 12:30 horas, de todo lo cual, como secretaria, doy fe.

ALKATEA
EL ALCALDE



IDAZKARIA
LA SECRETARIA

